AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA AMOROTOKO UDALAREN JABETZAKO HERRIKO TABERNAREN ERRENTAMENDU ETA USTIAKETAREN LIZITAZIO PUBLIKOA ARAUTUKO DUTENAK, PROZEDURA IREKI ETA HAINBAT IRIZPIDEREKIN

1. - KONTRATUAREN XEDEA

Baldintza-agiri honen arabera egingo den kontratuaren xedea hau da: Amorotoko Udalaren jabetzakoa den eta Elexalde auzoa 8, Elimendi etxearen behe eta lehen solairuan kokatutako Herriko Taberna deitutako taberna eta etxebizitzaren errentamendua esleitzea.

Baldintza-agiri honek kontratu-balioa du.

Kontratu honek izaera pribatua du, besteak beste Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 9 eta 26 artikuluek adierazten dutenez.

2.- HAUTAKETA ETA ESLEIPEN PROZEDURA.

Kontratu honen esleipena lehiaketa publiko bitartez izango da, edozein interesdunek proposamena aurkeztu ahalko duelarik. azaroaren 3ko 33/2003 Herri Administrazioen Ondarearen Legearen 107.1 artikuluarekin bat etorriz.

Proposamenak baloratu eta eskaintza onena zehaztea, kontratu honen xedeari zuzenean lotutako eta 9. klausulan jarritako esleipen irizpideen arabera egingo da.

3.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA.

Kontratazio prozedura honi dagozkion iragarkiak Amorotoko Udalaren Kontratatzailearen Profilean argitaratuko dira, www.amoroto.eus web orrian, nahiz eta beste publizitate mota batzuk erabili daitezken.

4.- LIZITAZIO TIPOA.

Oinarrizko kanona/lizitazio tipoa edo errentamenduaren zenbatekoa gutxienezko ***HIRU MILA ETA SEIEHUN (3.600,00 €)*** euro urteko izango da, lizitatzaileek gorantz hobeto dezakeelarik.. Kopuru honi dagokion Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) gehituko zaio.

Errentamendua esleitzen deneko prezioa bi zatitan ordainduko da, sei hilean behin eta aurretik. Amorotoko Udalak dagokion ordainagiria pasatuko dio esleipendunari, hark, kontratua sinatu aurretik emandako kaudimendun kontu korrontetik.

Esleipendunak eskatuz gero, Udalbatzak prezioaren ordainketa era aldatu dezake, bere ordainketa errazteko.

Urtero berrikusiko da kanon/errenta, adjudikazioa egiten den urtea salbu, aurreko urteko estatu mailan Kontsumoko Prezioen Indizeak (KPI) jasaten duen bilakaeraren arabera.

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

Kontratua indarrean dagoen bitartean lokala ixteak edo ustiatzeari lagatzeak edozein dela arrazoia ez du esleipenduna salbuetsiko kanona ordaintzeko duen obligaziotik.

Ordainketa egitean hamabost egun baino gehiago atzeratuz gero, ordaindu ez den zenbatekoaren gaineko %20ko errekargua izango du. Seihilebeteko bati dagokion errenta ez ordaintzeak kontratuaren desegitea ekar dezake, horrela Udalbatzak erabakiko balu.

5.- KONTRATAZIO ORGANUA.

Ikusirik errentamenduaren zenbatekoa eta bere epea lau urtetik gorakoa izanik, kontratazioa egiteko eta espedientea tramitatzeko organo eskuduna Udalbatza izango da, SPKLren bigarren xedapen gehigarriarekin bat etorriz.

6.- KONTRATUAREN IRAUPENA.

Kontratuaren iraupena BOST (5) URTEkoa izango da, adjudikazio kontratua sinatzen den egunetik zenbatuta. Kontratua urtero luzatu ahal izango da, guztira hamar urterarte.

Urteroko luzapena automatikoa izango da, beti ere kontratuaren edo honen urteko luzapenaren epemuga baino gutxienez HIRU (3) HILABETE lehenago alderdietako batek ezezkoa espreski adierazten ez badu.

7.- GAITASUNA ETA KONTRATATZEKO AHALMENAREN AKREDITAZIOA.

Estatuko edo atzerriko edozein pertsona fisiko zein juridikok, banaka edo enpresaburuen aldi baterako elkarte batean, proposamenak aurkezteko aukera izango du, beren kabuz edo ordezkarien bitartez, beti ere horretarako gaitasun osoa badu eta SPKLren 71. artikuluaren arabera administrazioarekin kontratatzeko debekurik ez badute.

Horrez gain, euren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala frogatu beharko dute.

7.1. **<u>Jarduteko gaitasuna</u>** modu honetan frogatuko da:

a) Pertsona fisikoek, euren Nortasun Agiri Nazionalaren bidez edo atzerritarrek agiri baliokidearen bidez.
b) Pertsona juridikoen gaitasuna, IFKren eta eraketa eskritura edo agiriaren bidez. Agiri horieran pertsona juridikoaren jarduera arautzen dituzten arauak agertu behar dira eta modu egokian inskribaturik egongo dira dagokien Erregistro Publikoan. Baldintza plegu honen xede diren jarduerek pertsona juridikoaren helburuen, xedearen edo jarduera-eremuaren barruan egon behar dute.
c) Kontratatzeko debekurik ez izatea.

7.2. **<u>Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa</u>** frogatzeko moduak:

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

a) Baimendutako entitatearekin aseguru poliza, higiezinean sortu daitezkeen arriskuak estaltzeko (udal jabegoko ondasunetako kalteak edo hirugarren pertsonei jardueraren funtzionamenduagatik zuzen edo zeharka ondorioztatuak) 300.000 € eurokoa gutxienez, edo, hala badagokio, poliza hori kontratatzeko konpromisoa, baldin eta lizitazio honen esleipenduna bada. Poliza hori kontratua indarrean dagoen bitartean mantenduko du lizitatzaileak bere kargura.
b) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan (EJZ) kontratuaren gaiari dagokion epigrafean altan dagoela frogatzeko, alta-agiria aurkeztuko du (edo, hala badagokio, alta emateko konpromisoa) uneko ekitaldiari dagokionean, edo EJZren azken ordainagiria gainerako kasuetan. Betiere, zerga horren matrikulan bajarik eman ez duenaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

7.3. **Kaudimen teknikoa** edo profesionala SPKLren 91. Artikuluan xedatutako moduen bidez frogatuko da. Horien artean, bereziki baloratuko dira:

a) Lizitatzaileak kontratuaren xede den jarduera edo prestazioa egiteko beharrezko titulazioa edo ziurtagiri profesionalak edukitzea.
   Zerbitzua emango duten langileek elikagaiak manipulatzeko agiria edo baliokidea dutela egiaztatu beharko da.
b) Lizitatzaileak urte beteko esperientzia izatea taberna edo jatetxe batean titular modura, edo errentari edo langile modura.
c) Kontratuan parte hartuko duen lan-ekipoaren deskribapena.
d) Euskal Autonomi Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen ezagutza baloratuko da.

8.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA. FORMALITATEAK ETA AGIRIAK.

8.1. Aurkezteko tokia eta epea.

Proposamenak elektronikoki aurkeztuko dira HOGEITA HAMAR (30) LAN-EGUNEKO epean (larunbat, igande eta jai-egunak kenduta), lizitazio iragarkia Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Plataforman (https://www.contratacion.euskadi.eus) argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epearen azken eguna larunbata, igandea edo jai-eguna balitz, epea hurrengo lanegunera arte luzatuko da.

Amorotoko Udalaren Kontratatzailearen Profilean (www.amoroto.eus) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Plataforman (https://www.contratacion.euskadi.eus) lizitazio-deialdiari buruzko informazioa emango da, administrazio klausulen agiriak eta dokumentazio osagarria barne.

Lizitatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkezteko aukera izango du. Proposamena aurkezteak lizitatzaileak pleguetan ezarritakoa baldintzarik gabe onartzen duela suposatuko du.

8.2. Eskeintzen aurkezpen elektronikoa.

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

Proposamenak horretarako gaitutako helbide elektronikoan aurkeztuko dira (https://egoitza.amoroto.net/kontratazioa/licitacion/oferta/asistenteInscripcion?numexpediente=B004-2024-00001), dagokion lizitazio-iragarkian zehazten den epean eta ordua baino lehen, eta eskaintza sinadura elektroniko aitortu bidez sinatuta egon beharko da, plataformak onartutako konfiantzazko zerbitzu elektronikoen emaile batek balio osoz jaulkitakoa, eta dokumentuaren, eskaintzaren eta harekin lotutako dokumentu guztien identitatea eta osotasuna bermatuko dituena, azaroaren 11ko 6/2020 Legean xedatutakoarekin etorriz, konfiantzazko zerbitzu elektronikoen alderdi jakin batzuk eta kontratazio publiko elektronikoaren gainerako xedapenak arautzen dituena.

Gutun-azal digitalaren zerbitzua pertsona/enpresa lizitatzaileentzat eskuragarri egongo da gaitutako Interneteko helbidetik. Helbide horretatik, eskaintza prestatzeko eta aurkezteko web-inprimakiak eskuratu ahal izango dira. Zure proposamena bidaltzeko unean, onartutako ziurtapen-erakunde batek emandako ziurtagiri digital batekin sinatu beharko duzu eskaintza.

Une honetan, nabigatzailetik, baina lizitatzailearen ordenagailutik bertatik, eskaintza jatorrian zifratuko da, lizitazio-plataformara kanal seguruaren bidez bidaliko da eta gordailu seguruan gordailutuko da, eta bertan zainduko da, beharrezko sarbide-eskubideekin bakarrik berreskuratu ahal izan dadin. Sarbide-eskubide horiek izendatutako telefonoek baino ez dituzte, eta ezarritako irekiera-unea iritsitakoan baliozkotu beharko dute beren identitatea.

Edozein arrazoi dela-eta enpresa lizitatzaileak ezin badu eskaintza bidali, bi fasetan bidali ahal izango du eskaintza:

Lehenengo fasean, pertsona/enpresa lizitatzaileek posta elektronikoz (info.amoroto@bizkaia.org) aurkeztu ahal izango dute eskaintzaren aztarna digitala, baldin eta eskaintzak aurkezteko epemugaren barruan bidaltzen bada. Eskaintzaren aztarna elektronikoa (hash) honako hau da: datu multzo bat, sortze-prozesuak bermatzen baitu zalantzarik gabe erlazionatzen direla eskaintzaren edukiarekin berarekin, eta aukera ematen dutela eskaintzaren edukiak izan ditzakeen aldaketak detektatzeko, eskaintzaren osotasuna bermatuz; izan ere, aukera ematen du egiaztatzeko edukia ez dela aldatu lizitatzaileak bidali zuen unetik bertatik. Lizitatzaileek beren eskaintzaren hatz-marka elektronikoa (hash) transkribatua (ez irudia) bidali beharko dute posta elektronikora (info.amoroto@bizkaia.org), zein espediente-zenbakiri dagokion eta lizitatzailearen identifikazio-datuak adierazita, Kontratazio Mahaiak aztarna digital hori eta eskaintza bidali ondoren aurkeztutako eskaintzaren aztarna bat datozela egiaztatu ahal izateko.

Bigarren batean, eskaintza bera igorri beharko dute, lizitazio elektronikorako gaitutako ohiko mekanismoaren bidez, gehienez ere 24 orduko epean, hatz-marka digitala bidaltzen dutenetik zenbatzen hasita. Adierazitako epean bigarren bidalketa hori egiten ez bada, eskaintza kendu egin dela ulertuko da.

Artxiboa kaltetuta dagoelako ezin bada eskaintza baten edukira sartu, lizitatzailearen ekipoan automatikoki sortutako tokiko kopiara jo daiteke, eskaintzaren aztarna digitala kontratazio-organoaren esku dagoenarekin bat datorrela egiaztatuz.

Eskaintza bidaltzen duen pertsona alde batera utzita, eskaintza elektronikoa enpresaren edo erakundearen izenean eta ordezkaritzan kontratatzeko ahalmen nahikoa duen pertsonak sinatu beharko du. Beraz, bi aukera eskaintzen dira:

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

1) Edo eskaintza osoa sinatzen da elektronikoki, enpresa edo erakundeko ahalordedunen ziurtagiriarekin, eta horrek aplikazioaren formularioetan sartutako informazioa baliozkotzen du.

2) Edo eskaintza ziurtagiri digitala duen pertsona batek bidaltzen du, eta eskaintzaren eskaintza elektronikoa osatzen duten dokumentu elektronikoak eransten dira, enpresaren edo erakundearen izenean eta ordezkaritzan kontratatzeko ahalmen nahikoa duen pertsonak sinatuak.

8.3. Formalitateak eta agiriak.

Lizitatzaileek kartazal elektroniko BI (2) aurkeztu beharko dituzte, lizitatzaileak edo bera ordezkatzen duen pertsonak izenpetuta; eta baldintza honetan, kartazal bakoitzerako zehazten den edukinarekin.

«A» KARTAZAL ELEKTRONIKOA.-«ADMINISTRAZIO-AGIRIAK ETA BALIO-JUDIZIO BATEN ARABERAKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA»

Kartazal honetan aurkeztu beharreko agiriak:

a) Gaitutako posta elektronikoko helbidea. (Eranskina III)

Gaitutako posta elektronikoko helbide bat izendatu behar da, SPKLren hamabostgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera. Bertan egingo dira kontratazio espediente honi dagozkion jakinarazpenak.

b) Lizitatzailearen erantzukizunpeko berariazko aitorpena. (Eranskina I)

Aitorpen horretan lizitatzaileak agertuko du Administrazioarekin kontratatzeko legez ezarritako baldintzak betetzen dituela, eta baita plegu honetan kontratua lortzeko ezarritako betebeharrak.

Dena de, Kontratazio Mahaiak edo Organoak, prozedurara ondo bukatzea bermatzeko, eskatu dezake, esleipena baino lehenagoko edozein unetan, lizitatzaileek aurkeztu ditzatela dagozkion agiriak, egiaztatzeko betetzen dituzten dituztela plegu honetan ezarritako baldintzak kontratuaren esleipenduna izateko.

Aldi baterako enpresa elkarte batean lehiatzen duten ekonomi-operadoreek, bakoitzak bere erantzukizunpeko aitorpena aurkeztu beharko du. Baita, kontratuaren esleipendun izanez gero enpresa elkartea formalki eratzeko konpromisoa aurkeztu beharko dute, eta zehaztu beharko dute aldi baterako elkarte horretan partaide bakoitzaren izen, inguruabar eta partaidetza.

c) Balio-judizio baten araberako irizpideei dagokion eskaintza, Eranskina II bezala agertzen den ereduari jarraituz.

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

A kartazalean jasoko da plegu honetan ezarritako irizpideak aintzat hartuta lizitatzaileak egindako eskaintza baloratzeko aurkezten diren merituak egiaztatzeko dokumentazioa:

Kontratuaren xede den **jardueraren <u>ustiapenari buruzko proiektua</u>.**

Baloratuko da zerbitzua emateko aurkezten den kudeaketa-proiektua, negozioaren plangintza eta antolaketa azaldu beharko dituena. Besteak beste, aipatuko dira:

- Jendearentzako ordutegia zabaltzeko aukera, plegu honetako 9.a.1) klausulan zehaztutako gutxieneko ordutegitik.
- Janari zerbitzua zabaltzeko aukera, plegu honetako 9.a.1) klausulan zehaztutako gutxienekotik.
- Produktu-eskaintza dendan handitzeko aukera, plegu honetako 9.a.1) klausulan zehaztutako gutxienekotik.
- Zerbitzuaren antolaketa eta aurrera eramateko jarduera-ekintzak, plegu honetako 9.a.1) klausularen arabera.
- Negozioa kokatuta dagoen ingurune fisiko eta giza-ingurunearen ezagupena, plegu honetako 9.a.1) klausularen arabera.

Pleguan ezarritako irizpideen arabera, lizitatzaileek eskaintzak baloratzeko orduan baliogarriak izan daitezken merituak egiaztatzeko egoki irizten duten beste dokumentu gehigarri erantsi ahal dituzte.

Honako proposamen hauek ez dira onartuko:

-Administrazioak eskaintza aintzat hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi eta garbi ezagutzea eragozten duten kontraesanak, omisioak, akatsak edo zirriborroak izatea.

-Prezioari buruzko dokumentazioa edo irizpide objektiboen arabera baloratu beharreko beste elementu batzuk.

Ezingo da beste batzuekin aldi baterako elkarterik sinatu, bakarka proposamena aurkeztu bada edo aldi baterako elkarte bat baino gehiagotan agertzen bada.

«B» KARTAZAL ELEKTRONIKOA.- «AUTOMATIKOKI ANTZEMATEN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA»

Proposamen bakarra jasoko du soilik, lizitatzaileak edo berau ordezkatzen duen pertsonak sinatuta egongo da eta IV. Eranskineko ereduari jarraiki idatzita.

B kartazal honetan sartuko da baita ere eskaintzaren baldintzak baloratzeko lizitatzaileak aurkezten duen dokumentazioa.

1.- Lizitatzaileak hasiera batean eskaintzen duen **<u>urteko kanona</u>** zehaztuko da, pleguan ezarritakoa gorantz hobetzeko aukerarekin eta aparteko partida bezala adieraziko da jasanarazi beharreko edozein zerga mota.

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

2.- Eraikinean egingo diren **hobekuntzak** azalduko dira, ekonomikoki baloraturik merkatu-prezioen arabera. Adb.: esleipendunak ustiaketara ekarriko dituen altzari, makina eta bestelako tresneria. Bereziki baloratuko da eraikinean berokuntza-sistema bat jartzea.

3.- **Lan-esperientzia**ri buruzko egiaztagiriak.

4.- **Euskararen ezagutza**ri buruzko egiaztagiriak.

Administrazioak egiaztatu dezake adjudikazio aurretik edo ondoren, eta baita kontratazioa indarrean dagoen bitartean ere, kartazalean sartu diren dokumentuen edukia egiazkoa dela; baita, kasua balitz, karatulan esleipenerako irizpide berezitzat jotzen diren agiriena ere. Lizitatzaileak aurkeztutako datuak eta zirkunstantziak faltsuak izanez gero, kontratua baliorik gabe utz daiteke kasu horretan, kontratistari egozten zaion haustearen ondorioz. Horrela, jarritako behin betiko bermea galdu egingo luke edo, kasuaren arabera eratu ez bada edo eratzea eskatzen ez bada, bere balioa duen kalte-ordaina. Gainera, kontratistak sortutako kalte-galerak ordaindu beharko dizkio konfiskatutako bermearen zenbatekoa gainditu egiten bada.

Proposamenak aurkezteak plegu honetan ageri diren klausulak eta kontratuarekin zerikusia duten gainerako dokumentuak baldintzarik gabe onartzea dakar lizitatzailearen aldetik, inolako salbuespenik gabe. Era berean, erantzukizuneko adierazpena egingo du ziurtatuz aurkeztu diren datu guztiak egiazkoak direla eta kontratuaren prestaziorako eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela.

Ez dira onartuko gutunazal bakoitzeko edukia betetzen ez duten proposamenak, ez direlako bereizi automatikoki antzematen ez direnen irizpideei dagozkien agiriak eta automatikoki antzematen direnei dagozkienak.

9.- ADJUDIKAZIORAKO IRIZPIDEAK.

Orokorrean eskaintzarik onena egiten duen alde egingo da adjudikazioa, plegu honetan agertzen diren irizpideak erabilita, prezioa bakarrik kontuan izan gabe.

Kontratuaren esleipenaren oinarri gisa erabiliko diren eskaintzak balioesteko irizpideak eta esleitzen zaien haztapena, balio-judizio baten araberakoak direnak eta automatikoki antzematen direnen artean bereizita, honako hauek dira:

a) BALIO-JUDIZIO BATEN ARABERAKOAK DIREN IRIZPIDEAK …… (45%) 45 puntu.

a.1) Jarduera ustiatzeko proiekturik onena. 45 puntura arte.

Balorazioa egiteko, proiektuari eskainitako puntuak honako banaketa-irizpide hauen arabera banatuko dira:

- Jardueraren egutegia eta zabaltzeko eta ixteko ordutegia: Gehienez 10 puntura arte.

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

Negozioa gutxienez astean sei egunetan egon beharko du zabalik eta, beti ere, egun hauetan: ostegun, ostiral, larunbat, igande, jaiegun eta jai-bezperetan. Astean atseden-egun bat har daiteke astelehen, astearte edo asteazkena izan behar delarik eta jaieguna edo jai-bezpera ez denean.

Ordutegia gutxienez 10:00tik 22:00ra izango da astelehenetik ostegunera eta igandeetan; eta 10:00tik 24:00ra ostiral, larunbat, jai-bezpera eta edozein motako herriko ospakizunetan.

Establezimendua ezin izango da itxita egon 15 egun jarraian baino gehiago eta ezingo da asteburu bi jarraian baino gehiagotan itxi, ezta herriko jaietan ere.

Irekitze-egutegia edota -ordutegia zabaltzea baloratuko da.

- Emateko janari zerbitzua: Gehienez 10 puntura arte.

Gutxienez eskaini beharko da:

- Irekitzetik bazkaltzeko ordura arte, ogitartekoak eta bertan prestatutako pintxoak eskaini beharko dira.
- Bazkaldu eta afaltzeko, gutxienez, plater konbinatuak eta ogitartekoak eskeini beharko dira.
- Asteburu eta jai-egunetan, eskaintza zabalduko da barrako pintxoekin.
- Aldez aurretik eskatuta, bazkari eta afarirako menuak emango dira.

Janari zerbitzuko eskaintzan eskuragarritasun eta aniztasun handiagoa izatea baloratuko da.

- Produktu-eskaintza dendan: Gehienez 5 puntura arte.

Dendan gutxienez produktu basiko ez-galkorrak izan beharko dira; esate baterako edariak, latakoak eta garbitasun-produktuak. Eta baita, gozokiak.

Produktu freskoak izatea baloratuko da (ogia, arrautzak, esnea, gaztaia, jogurtak, hestekiak) eta produktuen eskaintza zabalagoa izatea.

Bertoko eta urreko produktua lehenetsiko da.

- Zerbitzuaren antolaketa eta aurrera eramateko jarduera-ekintzak: Gehienez 10 puntura arte.

Baloratuko da antolatzea, bakarrik edo elkarlanean herriko elkarte/taldeekin, kultur, kirol edo aisialdi eta jai-ekintzak aretoan; besteak beste, mus txapelketa, bazkari tematikoak,....

- Negozioa kokatuta dagoen ingurune fisiko eta giza-ingurunearen ezagupena: Gehienez 10 puntura arte.

Negozioa kokatuta dagoen ingurune fisikoa eta giza-ingurunea ezagutzea baloratuko da eta baita ezaugarri horretako lokal bateri egokitutako eskaintza egitea.

b) AUTOMATIKOKI ANTZEMATEN DIREN IRIZPIDEAK .. ……. (55%) 55 puntu.

b.1) Eskeinitako urteko kanona: 25 puntura arte.

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

Eskaintza ekonomikoaren balorazioa proportzionalki egingo da, lizitatzaile bakoitzaren goranzkoa lizitazio tipoarekin alderatuz. Hurrengo formula erabiliko da, non errenta handieneko eskaintzari 25 puntu ematen zaizkio.

V=25b/B

V= Eskaintza ekonomikoaren balorazioa.

b= Baloratu beharreko proposamen ekonomikoak eskainitako urteko errenta.

B= Aurkeztutako eskaintzarik handienaren urteko errenta.

b.2) Herriko Taberna eraikinean **hobekuntzak** egiteko konpromisoa, ekonomikoki baloraturik: Gehienez 10 puntura arte.

Lizitatzaileak zerbitzuan jarriko lituzkeen altzariak, makinak eta gainerako tresnak baloratuko dira, 5.000 euroko guztizko balio ekonomikoarekin, formula honen arabera: 10 puntu emango zaizkio 5.000,00 euroko hobekuntza-konpromisoari.

P=10m/M

P= Eskainitako hobekuntzen puntuaketa.

m= Baloratu beharreko proposamenean eskainitako hobekuntzen balio ekonomikoa.

M= Eskainitako hobekuntzen balio puntuagarri maximoa (5.000,00 €).

Bereziki baloratuko da lokalean berotze-sistemaren bat instalatzea. Eta baloraziorako ez dira kontutan hartuko telebista aparatua, sukaldeko tresneria, ontziteria, kristaleria eta antzekoak.

b.3) Lizitatzailearen **lan-esperientzia** egiaztatua: Gehienez 15 puntura arte.

1 punturekin baloratuko da negozioaren jabe edo arduradun bezala ostalaritza establezimenduetan lan egin izan egiaztatutako urte oso bakoitzagatik.

Esperientzia negozioaren kudeaketan ardurarik gabeko langile/enplegatu bezala izanez gero, 0,50 punturekin baloratuko da egiaztatutako lan urte oso bakoitzagatik.

Balorazioa bikoiztu egingo da egiaztatutako esperientzia 1.000 biztanle baino gutxiagoko herri bateko antzerako establezimendu batekoa denean.

b.4) Euskararen : Gehienez 5 puntura arte baloratuko da.

- A1 maila: 1 puntu.
- A2 maila: 2 puntu.
- B1 maila: 3 puntu.
- B2 maila edo gorakoa: 5 puntu.

10.- KONTRATAZIOA MAHAIA.

SPKLaren bigarren xedapen gehigarriaren zazpigarren puntuaren arabera, Kontratazio Mahaia era honetara osatuko da:

- Lehendakaria: udalekoa bera edo hark eskuordetutakoa.
- 1 mahaikide: udaleko idazkari-kontuhartzailea.
- Idazkaria, administrazio orokorreko udal funtzionarioa.

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

Mahaiak beharrezko deritzon aholkulari teknikoen laguntza jaso dezake. Aholkulariok ahotsarekin baina botorik gabe jardungo dute.

11.- PROPOSAMENAK IREKITZEA.

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, honako lan hauek burutuko dira:

1. «A» KARTAZAL ELEKTRONIKOA IREKITZEA

Kontratazio Mahaiak, gutxienez 48 ordu aurretik kontratatzailearen profilean argitaratuko den toki, egun eta orduan, "A" kartazalak elektronikoki irekiko ditu eta aztertuko du bertan dauden agiriak, bai kontratua lortzeko ezarritako betebeharren betetzeari dagokienak, bai balio-judizio baten araberako irizpidei buruzkoak.

Egintza honen ondoren, Mahaiak udal zerbitzu teknikoei igorriko dizkie agiriak, aipatutako irizpideen balorazioa egin dezaten. Edo, bere kasuan, beharrezko deritzon txosten teknikoak eskatuko ditu, SPKLren 146.2.b), 150.1 eta 157.5 artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

Hori horrela, beharrezko balitzateke agirietan akats eta hutsuneak zuzentzea, Mahaiak gehienez sei laneguneko epea emango du beraiek zuzentzeko, urriaren 30eko 20/2007 Sektore Publikoko Kontratuen Legea partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko RD817/2009ren 27. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lizitatzaileren baten dokumentazioak funtsezko akatsak balitu edo konpontzeko modukoak ez diren hutsune materialak, ez da lizitazioan onartua izango.

«B» KARTAZAL ELEKTRONIKOA IREKITZEA ETA LEHEN SAILKATUARI ERREKERIMENDUA EGIN ARTEKO EGINTZAK

«A» kartazal elektronikoa ireki eta zerbitzu tekniko eta, eskatutako txosten tekniko bitartez, balio-judizio baten araberako irizpideen balorazioa egin ondoren, Kontratazio Mahaiak, udaleko kontratatzailearen profilean argitaratuko den toki, egun eta orduan, «B» kartazalak irekiko ditu eta ondorengo egintzei ekingo dio:

1.- Balore-judizio baten araberako irizpideen balorazioaren emaitza jakitera ematea.

2.- Lizitatzaile bakoitzaren «B» kartazala irekitzea eta bere edukina irakurtzea.

Egintza horren ondoren, saio berdinean edo beharrezko diren saioetan, Mahaiak ondorengo egintzak burutuko ditu:

1.- Bere kasuan, pleguko betebehar eta baldintzak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertu.

2.- Automatikoki edo formulak erabiliz zenbatu daitezken irizpideak baloratzea.

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

Beharrezkoa baderitzo, erabakiko du agiriak udal zerbitzu teknikoei igortzea, aipatutako irizpideen arabera eskaintzak aztertzeko eta beharrezko kalkuloak egiteko.

3.- Eskaintza bakoitzak lortutako puntuaketa osoa ezartzea eta gutxiagotuz doan ordenean sailkatzea.

4.- Puntuaketa onena duen lizitatzailearen aldeko esleipen-proposamena egitea.

Berdinketa izanez gero eskaintza hoberenen artean, kontratuaren esleipen proposamena eskaintza ekonomiko altuena aurkeztu duen lizitatzailearen alde egingo da; berdinketak jarraituz gero, Kontratazio Mahaiak egindako zozketa bidez egingo da esleipen proposamena.

Esleipen proposamenak ez du inolako eskubiderik sortuko proposatutako lizitatzailearen alde. Administrazioarekiko eskubideak ez dira eskuratuko kontratua gauzatzen ez den bitartean.

Egindako guztia jasota geratuko da espedientean, derrigorrez idatzi behar diren akten bitartez.

12.- BEHIN-BEHINEKO ADJUDIKATZAILEARI ERREKERIMENDUA.

Kontratazio-organoak Mahaiaren proposamena onartutakoan, komunikazio elektroniko bidez.ondorengo agiriak aurkeztea eskatuko dio eskaintza egokiena egin duen lizitatazaileari. Agiriak aurkezteko epea hamar lanegunekoa izango da, idatzia jaso duen biharamunetik zenbatzen hasita.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Identifikazio Fiskaleko Kodea.
- EJZn altan egotea ekitaldian eta helbide fiskalean, zerga horretan baja emanda ez egotearen erantzukizuneko aitorpenarekin osatuta.
- Behin betiko bermea jarri duenaren justifikazioa.
- Baimendutako entitate batekin nahitaez izan beharreko aseguru polizak eginda eta ordainduta dituenekо ziurtagiriak gutxienez 300.000,00 € euroko zenbatekokoa, errentan emandako higiezinean gerta daitezkeen arriskuak estaliko dituena (udalaren jabetzako ondasunei kalteak, edo hirugarren batzuei zuzenean edo zeharka eragindakoak jardueraren funtzionamenduaren ondorioz). Indarrean egongo da errentamenduak irauten duen epean, hala badagokio luzapenetan ere zabalduko da eta Udala edozein erantzukizunetik kanpo utziko du.
- Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean dagoela frogatzen duten ziurtagiriak.
- Kontratuaren exekuzioan erabiltzeko konprometitutako baliabideak benetan dituela egiaztatzen duten agiriak.
- Kontratu honen esleipendun izateko, Plegu honetan eskatutako gainontzeko agiriak.
- Esleipenduna aldi baterako enpresa bat denean, aurreko puntuetan adierazitako agiriez gain, bere eratze-eskritura publikoaren kopia , emandako IFK eta ordezkariaren izendapena.

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

Esleipendun bezala proposatutako hautagaiak, horretarako emandako epean ez badu egindako errekerimendua behar bezala betetzen, ulertuko da lizitatzaileak bere eskaintza atzera bota duela, eta zigor bezala, lizitaziorako oinarrizko prezioaren %3a exijituko zaio.

Kasu horretan, puntuaketan hurrengoa den hautagaiaren aldeko esleipen proposamena egingo da, azken honi epea emanez dokumentazio berbera aurkezteko.

13.- BEHIN-BETIKO BERMEA.

Kontratuaren esleipendunak HIRU MILA (3.000,00 €) euroko behin-betiko bermea utzi beharko du kontratazio-organoaren eskuetan, arautegiak onartutako edozein era erabiliz horretarako.

Kontratuaren esleipendunak bermea osatu izana egiaztatu beharko du 10 egun naturaleko epean, jakinarazpena egiten zaion biharamunetik kontatzen hasita. Berari lepora dakizkiokeen arrazoiengatik baldintza hau ez bada betetzen, Administrazioak bertan behera utziko du haren aldeko esleipena; eta haren hurrengo lizitatzaileari edo lizitatzaileei esleituko zaie, haien eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkerari jarraituz.

Behin-betiko bermea eskatzen da esleipendunak kontratu betebeharrak beteko dituela bermatzeko, bai eta udal jabetzako ekipamendua kontserbatuko dela bermatzeko ere.

Hori horrela, ez da fidantza itzuliko esleipenduna ez badu gutxienez kontratuaren epearen hirugarren bat betetzen (ezinbestekoak ezik), ezta errentamendua utzi nahia hiri hilabeteko aurreabisua ez bada betetzen.

14.- ADJUDIKAZIOA ETA KONTRATUA SINATZEA.

Dokumentazioa jaso eta ondorengo hamabost lanegunen barruan, Kontratazio organoak, Kontratazio Mahaiaren dokumentazioa jaso ondoren, kontratuaren adjudikazioaren erabakia hartuko du.

Behin betiko adjudikazioa erabakitakoan, lizitazioan parte hartu dutenei jakiaraziko zaie eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Esleipenduna behartuta geratzen da, adjudikazioaren jakinarazpena jaso eta hurrengo hamar lanegunen barruan, kontratua eratuko duen dokumentua sinatzera. Eta honi lotuko zaio, kontratuaren barruan sartuta geratuz, adjudikatarioaren eskaintza eta baldintza ekonomiko-administratiboen pleguaren kopia bat, behar bezala konpultsatuta, eta baita bere erabilerarako jartzen diren altzariak, makineria eta instalazioen inbentarioaren kopia bat.

Aipatutako epearen barruan, adjudikatarioari atxikitutako arrazoiarengatik kontratua eratzen ez bada, Administrazioak , Sektore Publikoaren Kontratuen 9/2017 Legearen 153.4. artikuluak agintzen duen arabera jokatuko du.

15.- ESLEIPENDUNAREN ESKUBIDEAK.

Esleipendunaren eskubideak dira:

1) Herriko Tabernaren lokala osatzen duen Elimendi Etxeko beheko solairu osoa erabiltzea, eta baita Amorotoko Udalaren jabetzakoak diren altzari, makineria eta bestelako tresnak.

2) Elimendi Etxeko lehen solairuko etxebizitza bizileku bezala erabiltzea, bere ekipamendu, altzari eta tresnekin.

3) Mahai eta aulkiak jartzea tabernako terraza gisa erabiltzeko, udaldian edo esleipendunari negozioari begira interesatzen zaionean. Eraikinaren aurreko fatxadan jar daitezke aurretiaz Amorotoko Udalarekin adostutako lekuetan, San Martin jaietan izan ezik.

4) Udalak egitea aparteko izaerako konponketak (zerbitzuarekin loturiko ondasunen erabilera eta mantenu arruntarekin zerikusia ez dutenak), beti ere beharrezkoak badira eta indarreango araudian exijituak establezimenduaren funtzionamendurako.

5) Astean atseden egun bat, baina inoiz ez osteguna, ostirala, larunbata, igandea, jai-eguna edo jai-bezperan.

16.- ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK.

Esleipendunaren betebehar bereziak ondorengoak dira:

1) Negozioa irekitzea, esleipendunak eskainitako egutegi eta ordutegiari jarraituz.

Edonola ere, negozioa gutxienez astean sei egunetan egon beharko du zabalik eta, beti ere, egun hauetan: ostegun, ostiral, larunbat, igande, jaiegun eta jai-bezperetan.

Ordutegia gutxienez 10:00tik 22:00ra izango da astelehenetik ostegunera eta igandeetan; eta 10:00tik 24:00ra ostiral, larunbat, jai-bezpera eta edozein motako herriko

Esleipendunak hala eskatuz gero, astean atseden-egun bat har daiteke; astelehen, astearte edo asteazkena izan behar delarik eta beti ere jaieguna edo jai-bezpera ez denean.

Establezimendua ezin izango da itxita egon 15 egun jarraian baino gehiago eta ezingo da asteburu bi jarraian baino gehiagotan itxi, ezta herriko jaietan ere.

2) Ordutegiei eta jarduera gogaikarriei buruz indarrean dagoen araudia betetzea, bai eta, oro har, jarduerari aplika dakizkiokeen legezko xedapen guztiak ere.

3) Tabernaren negozioa zuzenean eta pertsonalki eramatea errentatutako lokalean, dedikazio osoz; ezingo delarik azpierrentatu ezta ustaipena laga.

Zuzenean eta pertsonalki erantzun udalaren aurrean, errentatutako lokalean negozioaren funtzionamendu onari buruz.

4) Tabernako hizkuntza paisaia guztia (kartelak, prezioak, menuak,...) euskaraz idatzita egongo da. Eta euskarazko prentsa eduki beharko da.

5) Errenta epean ordaintzea, laugarren klausulan ezarritako eran.

6) Ur, telefono, energia elektriko eta gasaren gastuak, udal zerbitzuei dagozkien prezio publikoak eta tasak, eta Herriko Tabernaren ustiaketarekin loturiko gainerako gastuak ordaintzea.

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

7) Negozioaren ustiaketari dagokion era guztietako zergen ordainketa, baita negozioaren ustiaketarako behar diren legezko baimenen ondoriozkoak diren gastuak ere. Bereziki, Jarduera Ekonomikoen Zergan alta eman beharko da tabernaren

8) Esleipendunaren ardura eta erantzukizuna izango da, dagokion araudia betetzea, bai zerga eta lan arloetan, bai gizarte segurantza eta lan-segurtasunari buruzkoa, eta orokorrean, jarduerari ikutzen dion edozein araudi,ez betetzeak administraziorako inolako erantzukizunik sortuko ez lukeelarik.

9) Lokala eta bere ingurua erabilera, kontserbazio, txukuntasun eta garbitasun egoera onenean mantzentzea.

Esleipenduna egin behar ditu tabernari dagozkion guneen garbiketa, arreta berezi jarriz, garbiketaren kalitatea eta maiztasunari dagokionez, komunei eta janari/edariak prestatu eta ematen diren inguruei. Terrazako gunea ere garbitu beharko du, eta baita tabernako sarrera-irteerak.

10) Erabilera eta kontserbazio egoera onean mantentzea emandako lokala eta bertan dauden instalazio guztiak; hau da, bere kontura egitea beharrezkoak diren obrak lokala ondo kontserbatzeko, konponketak egitea eta hondatzen diren elementuak berriro jartzea, hots, margotzea, argi eta uraren instalazioak, ateak, leihoak, altzariak, sukaldea, aparailuak eta abar.

Edozein kasutan, esleipendunak ezingo du obrarik eraikinean udalaren baimenik gabe, eta egiten dituenak eraikinaren alde geratuko dira, jartzen dituen aparatuak izan ezik; horiek bere jabetzakoak izango dira.

11) Elementu guztiak udalari bueltatu beharko zaizkio ustiapena hasitakoan zeuden era eta egoera berdinean.

Etorkizunean arazorik ez izateko, emandako ondasunen inbentarioa helaraziko zaio esleipendunari, makinaria, tresna eta altzariak barne, eta izenpetu beharko du adostasun seinale. Horrek suposatzen du emandako elementuren bat kaltetu, galdu edo suntsituz gero, bere ordezkoa erosi beharko duela.

12) Ustiapenaren aurrean izatea eta bezeroen eskura izan esleipendunak eskainitako janari zerbitzua.

Edonola ere, gutxienez eskaini beharko da:

- Irekitzetik bazkaltzeko ordura arte, ogitartekoak eta bertan prestatutako pintxoak eskaini beharko dira.
- Bazkaldu eta afaltzeko, gutxienez, plater konbinatuak eta ogitartekoak eskeini beharko dira.
- Asteburu eta jai-egunetan, eskaintza zabalduko da barrako pintxoekin.
- Aldez aurretik eskatuta, bazkari eta afarirako menuak emango dira.

Janari zerbitzuko eskaintzan eskuragarritasun eta aniztasun handiagoa izatea baloratuko da.

13) Aplikatu beharreko prezioen tarifak ezingo du gainditu Lea-Artibai eskualdeko antzeko establezimenduetan kobratzen diren prezioen batez bestekoa.

14) Aurreko esleipendunari adjudikazio-egunean tabernaren izakinak eskuratzea, erosketa-prezioan balioetsiak.

15) Kanpoko terraza jartzea aulkiak eta mahaiak jarrita, udan eta egokitzat jotzen den urteko beste sasoietan, Amorotoko Udalarekin aldez aurretik adostuta espazio publikoa erabiltzeko.

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

16) Hala eskatzen duten udal-jardueretarako, jendearentzat eskuragarri izango dira sarrerak/tiketak interesatuei saltzeko.

17) Sor daitezkeen kalteei aurre egiteko aseguru-poliza bat sinatzea, gutxienez 300.000,00 eurokoa.

18) Maizterrak kontratua amaitu baino lehen bertan behera utzi nahi badu, gutxienez hiru hilabete lehenago jakinarazi beharko dio Udalari. Bestela, errentariak jarritako fidantza galduko da.

19) Errentariak ezingo du jolas-makinarik edo jolas-elementurik instalatu Udalaren berariazko baimenik gabe.

20) Lokala kontratu honen xede den jarduerarako bakarrik erabiltzea, eta ezin izango da inolaz ere lokalaren erabilera aldatu Udalaren aldez aurreko baimen espresurik gabe.

21) Jokabide oneko arauak betetzen direla zaintzea.

22) Lege-ondorio guztietarako, eta sor daitezkeen betebehar edo erantzukizunei dagokienez bereziki, esleipenduna negozioaren ustiapenaren titular bakar eta esklusibo gisa agertuko da eta jardungo du, eta Amorotoko Udalarenganako izaera eta erabateko banantze juridiko hori nabarmendu beharko du; izan ere, Amorotoko Udalak ezin izango du inola ere bere egintzen bidez behartu. Beraz, esleipendunak taberna ustiatzeko kontratatu edo haren menpeko langile guztiak bere kontura izango dira, eta ezin izango dira inoiz Udaleko langiletzat hartu.

23) Emakidadunaren kontu eta erantzukizun esklusiboa izango da hornitzaileekiko zorrak ordaintzea eta, oro har, era guztietako erantzukizunak (zigorrak, kontratuz kanpoko erruagatiko erantzukizuna, etab.). negozioaren ustiapenetik eratorritako ezein arrazoirengatik Amorotoko Udalari zuzeneko edo zeharkako erantzukizunik eskatu ezin zaionean.

24) 3 egun naturaleko epean ohartaraztea udalari aparteko konponketen beharra eskatzen duten gertaerak. Hauek udalaren kontura izango dira.

25) Inbentarioan ez dauden eta tabernaren zerbitzua abian jarri eta eskaini ahal izateko ezinbestekoak diren kontsumigarriak eta ez-kontsumigarriak diren hornigaiak eta materiala jartzea.

26) Amorotoko Udaleko ordezkariei bisitak baimentzea. Sarrera irekia izango dute emandako ondasunaren instalazio guztietan, bere obrak, instalazioak eta lokalak, eta kontratuarekin zerikusia duen dokumentazioa ikuskatzeko. Halaber, ahalmena izango dute aginduak emateko esleipena mantendu edo behar bezala berrezartzeko ere, eta baita kontratu honen xede diren instalazioak ondo erabiltzen direla egiaztatzeko ere.

Udalak beretzat gordetzen du emakida edo errentamendua deuseztatzeko eskubidea, zerbitzu txarragatik edo kontzeptu publiko ona kaltetzen duten arrazoiengatik beharrezkoa dela irizten dion edozein unetan. Gainera, errentariak jarritako fidantza eta kalte-ordaina jasotzeko eskubidea galduko lituzke, hala badagokio.

Era berean, Udalak bere iragarki ofizialak Herriko Tabernan jartzeko eskubidea izango du.

17.- ESKUALDATZEKO DEBEKUA.

Debekatu egiten da plegu honetan aipatzen diren baldintzetatik sortzen diren eskubideak eskualdatzea, subrogatzea edo lagatzea.

Debeku horiek ez betetzeak kontratua suntsiaraztea ekarriko du, fidantza galtzea, eta, hala badagokio, kalte-galerak ordaindu beharra.

18.- GASTUAK ESLEIPENDUNAREN KONTURA.

Ondoren zehazten diren gastuak esleipendunaren kontura izango dira:

a) BEZaren ordainketa bere kargu hartzea, baita kontratutik ondorioztatzen den edozien zerga edo tasa ere.

b) Hala balegokio, esleipen kontratuaren formalizazio publikoaren gastuak.

c) Baimendutako entitatearekin eginiko kalte eta erantzukizun zibileko aseguruen polizen ordainketa. 300.000,00 € euroko estaldura duen poliza izango da eta emandako higiezinean sor daitezkeen arriskuak estaliko ditu (ostalaritza industriaren jarduera zuzen edo zeharkakoaren ondorioz udal jabetzako ondasunei edo hirugarren batzuei eragin dakizkiekeen kalteak). Kontratuak irauten duen epealdi osoan egongo da indarrean, hala badagokio luzapenak eginez, eta udala balizko erantzukizunetatik babestuko du.

19.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK.

19.1 Arau-hausteak.

Kontratistak egin ditzaken arau-hausteak era honetara sailkatuko dira: oso larriak, larriak edo arinak.

1**.- Oso larritzat** hartuko dira ondorengo arau-hausteak:

a.- Zerbitzua bertan behera uztea edo ez erabiltzea arrazoirik izan gabe.

b.- Baimendu gabeko erabilera ematea lokal eta instalazioei.

c.- Baimendu gabeko obrak edo aldaketak egitea.

d.- Kontratatutako zerbitzua, osoa edo zati bat, lagatzea, berralokatzea edo traspasatzea udalak aurretik baimena eman gabe.

e.- Bi falta larri egitea.

f.- Zerbitzuaren kalitate baxua, udalbatzak horrela uste badu espediente kontrajarria tramitatu ondoren.

g.- Beste edozein arau-hauste, behin eta berriro egiteagatik, kontratuko funtsezko obligazioak ez betetzea dakarrena.

2.- **Larritzat** hartuko dira ondorengo arau-hausteak:

a.- Gai bati buruz udalak idatziz emandako aginduak ez betetzea bi aldiz baino gehiagotan. Aginduak gai hauei buruz izan daitezke: zerbitzuaren ordena, eskaintzeko era, aldaketa edo hobekuntzak lokalen erabileran, baldin eta ez badute gastu handiagorik ekartzen.

b.- Lokalen eta instalazioen mantentze lanak eta garbiketa beharrak ez betetzea.

c.- Plegu honetan jasotako esleipendunaren betebeharrak ez betetzea baldin eta oso larriaren kalifikazioa merezi ez dutenean eta ezta arau-hauste arinarena ere.

d.- Bi falta arin egitea.

3.- **Arintzat** hartuko dira ondorengo arau-hausteak:

a.- Bezeroenganako tratu okerra.

b.- Zerbitzuen prestazio ez egokia.

c.- Taberna ez zabaltzea eta udalaren aldez aurreko baimena ez izatea horretarako.

19.2.- Zigorrak.

1.- Oso larriak diren arau-hausteak honela zigortuko dira: kontratuaren desegitea eta 1.500-6.000 euro bitarteko isuna, beti ere dagokion espediente zigortzailea tramitatu ondoren.

2.- Larriak diren arau-hausteak honela zigortuko dira: 300-1.500 euro bitarteko isuna, beti ere dagokion espediente zigortzailea tramitatu ondoren.

3.- Arinak diren arau-hausteak honela zigortuko dira: Alkatetzak zuzenean esleipendunak entzun ondoren. Isuna 150 euro arte izan daiteke.

Zigorren maila jartzeko kontutan hartuko da:

a.- Fede txarra.

b.- Arriskua, pertsonei eta gauzei eragindako kalte-galerak.

c.- Errepikatzea edo berriro egitea.

d.- Eragindako kalte ekonomikoa.

e.- Udalaren irudi publikoa kaltetzea.

Plegu honetan aurreikusitako arau-hauste bat egiten ari dela ikusitakoan, udalak, beharrezkoa balitz, dagokion akta jasoko du. Akta esediente zigortzaile egokiari hasiera ematera zuzenduko da. Espediente zigortzailearen hasieran udalak erabaki dezake, kautelazko neurri bezala, zerbitzua etetea.

20.- KONTRATUA IRAUNGITZEA.

Kontratua ondorengo arrazoiengatik iraungi daiteke:

- Seihilabeteko errenta ez ordaintzeagatik.
- Udalak hala eskatuta hiru hilabete aurretik.
- Esleipendunaren heriotzagatik. Egoera horretan Amorotoko Udalak beretzat gordetzen du oinordekoei errentamenduarekin jarraitzeko baimena emateko eskubidea.
- Administrazioa eta esleipenduna ados jarrita.
- Esleipendunak behin betiko bermea ez uztea aurreikusitako epean, kontratua ez formalizatzea epearen barruan, edo jardueraren hasierarako epea atzeratzea.
- Plegu honetan jasota dauden obligazioak ez betetzeagatik.

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

Lehenengo eta azken bi kasuetan, iraungitzeak jarritako bermea galtzea ekarriko du, eta hala badagokio, baita kalte-ordainak ordaintzea ere. Horrez gain, esleipendunari une horretan zor ditzakeen zorren zenbatekoa ere exijituko zaio.

21. KONTRATUAREN AMAIERA.

Edozein arrazoi dela-eta kontratua amaitzean akta jasoko da eta bertan azalduko da esleipendun-emakidadunak Ziortza-Bolibarko Udalari zer zirkunstantzia eta egoeratan itzultzen dion higiezina, instalazioak, altzariak, tresnak eta abar. Inbentarioarekiko aldeak ere zehaztuko dira, esleipendun-errentariak dagozkion kalte-ordainak ordain ditzan.

Alkatearen oniritziarekin Amorotoko Udaleko idazkariak eta esleipendun-emakidadunak sinatuko duten akta horretan kontratuaren etenaren arrazoiak zehaztuko dira eta berriro jarri behar den hondatutako guztiaren zenbatekoa. Esleipen-errentaria ordaintzera derrigortuta egongo da; eta sinatu eta HAMABOST (15) egun naturaleko epean ez bada ordaindu, bermea atxikita geratuko da, baita subsidiarioki sordunaren ondasun guztiak ere zorra ordaindu arte.

Esleipenduna Udalak esandako egunean azken akta egiteko azalduko ez balitz, udal idazkariak idatzitako dokumentua balekotzat joko da.

Plegu honetan jasotako edozein arrazoirengatik kontratua etengo balitz, automatikoki utziko dute zerbitzua tabernan lan egiten duten langile guztiek, eta haien lotura juridikoa esleipendunaren eta bere negozioaren ingurunera murriztuko da, hau da, ezingo dio establezimenduari eragin.

Amorotoko Udaleko eskumendun organoak hartuko du kontratua eteteko erabakia, eta esleipendunak taberna eta haren edukia jaso zuen eran itzuliko dio jakinarazpena egin eta HOGEITA HAMAR (30) egun naturaleko epean. Bere jabetzakoa den guztia jaso beharko du.

22.- ERREGIMEN JURIDIKOA.

Ondarezko izaera duen kontratu honi aplikatuko zaio:

- Plegu honetan ezarritakoa;
- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena;
- Apirilaren 18ko 781/1986 E.D.L, toki araubideari buruz indarrean dagoen arautegia onartzen duen testu bateratua;
- Ondasunen Erregalamendua, Herri Administrazioen Ondarearen Legea eta,
- Kontratua prestatzeko eta adjudikatzeko Sektore Publikoko Kontratuen Legea.

Alderdien arteko eztabaidak konpontzeko administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordena izango da eskuduna.

Amoroto, 2024ko urtarrila

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

DILIGENTZIA.- Administrazio baldintzen agiri hau Udalbatzak 2024ko urtarrilaren 23an egindako Osoko Bilkuran onartu zuela egiaztatzen dut.

Amoroton, 2024ko urtarrilaren 30ean.

UDAL IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA,

MIREN BEGOÑA LAKA ORTUONDO - 30597876X

Firmado digitalmente por MIREN BEGOÑA LAKA ORTUONDO - 30597876X
Fecha: 2024.02.01 08:37:28 +01'00'

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

I ERANSKINA. KONTRATATZEKO BALDINTZAK BETETZEARI BURUZKO AITORPENA (A KARTAZALA)

Lizitatzailearen datuak:
Izen/abizenak:
NAN/AIZ:
Helbidea:
Telefonoa:
Helbide elektronikoa:

Juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa edukirik,

Ordezkariaren datuak (ordezkaririk balego):
Izen/abizenak:
NAN/AIZ:
Helbidea:
Telefonoa:
Helbide elektronikoa:

HONAKOA DEKLARATZEN DU:

I. Amorotoko Udalaren jabetzakoa den, Amorotoko Elexalde azuoa 8an kokatutako Herriko Tabernaren errentamendu eta ustiapena xede dituen kontratua esleitzeko Amorotoko Udalak deitutako prozedurari buruz jakitun dagoela.
II. Era berean, administrazioko klausula partikularren plegua eta dokumentazio teknikoa aztertu duela eta ezagutzen duela.
III. Baita ezagutzen dituela kontratazio honetan aplikagarriak diren legezko eta erregalamenduzko testuak.
IV. Sektore Publikoaren Kontratuen 9/2017 Legearen 141. artikuluaren betebeharrean, espreski aitortzen du administrazioko baldintzen plegua eta dokumentazio teknikoa eta legez ezarritako ahalmenari eta kaudimenari buruzko baldintzak betetzen dituela eta kontratazio honetan aplikagarriak direnak kontratu honen esleipendun izateko, administrazioak hala eskatzen dionean aurkeztuko dituen konpromisoa hartuz.
Ahalmenari eta kaudimenari lotutako baldintza horiek , proposamenak aurkezteko pleguan ezarritako epea amaitu aurretik betetzen direla.
V. Ez duela Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritako kontratatzeko debekurik.

.....n, 2024ko.....ren.....an.
Sinadura

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

II ERANSKINA. BALIO-JUDIZIO BATEN ARABERAKO IRIZPIDEEI DAGOKION ESKAINTZA EREDUA (A KARTAZALA)

Lizitatzailearen datuak:
Izen/abizenak:
NAN/AIZ:
Helbidea:
Telefonoa:
Helbide elektronikoa:

Juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa edukirik,

Ordezkariaren datuak (ordezkaririk balego):
Izen/abizenak:
NAN/AIZ:
Helbidea:
Telefonoa:
Helbide elektronikoa:

HONAKOA DEKLARATZEN DU:

I. Amorotoko Udalaren jabetzakoa den, Amorotoko Elexalde azuoa 8an kokatutako Herriko Tabernaren errentamendu eta ustiapena xede dituen kontratua esleitzeko Amorotoko Udalak deitutako prozedurari buruz jakitun dagoela.
II. Era berean, administrazioko klausula partikularren plegua eta dokumentazio teknikoa aztertu duela eta ezagutzen duela.
III. Baita ezagutzen dituela kontratazio honetan aplikagarriak diren legezko eta erregalamenduzko testuak.
IV. Lokalaren ustiapena aurrera eramateko konpromisoa hartzen duela, baldintza pleguan ezarritako baldintzak beteaz, honako A kartazalean erantsitako esleipen irizpideak ere aintzat hartuta:

Lokalaren ustiapenerako proiektua gehitzen da, zerbitzua emateko aurkezten den kudeaketa-proiektua, negozioaren plangintza eta antolaketa azaldu beharko dituena. Besteak beste, aipatuko dira:

- Jendearentzako ordutegia zabaltzeko aukera, zehaztutako gutxieneko ordutegitik.
- Janari zerbitzua zabaltzeko aukera, zehaztutako gutxienekotik.
- Produktu-eskaintza dendan handitzeko aukera, zehaztutako gutxienekotik.
- Zerbitzuaren antolaketa eta aurrera eramateko jarduera-ekintzak.
- Negozioa kokatuta dagoen ingurune fisiko eta giza-ingurunearen ezagupena.
- Egoki irizten duten bestelako dokumentu gehigarriak.

.....n, 2024ko.....ren.....an.
Sinadura

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

III ERANSKINA. GAITUTAKO POSTA ELEKTRONIKOKO HELBIDEA IZENDATZEKO EREDUA (A KARTAZALA)

Lizitatzailearen datuak:
Izen/abizenak:
NAN/AIZ:
Helbidea:
Telefonoa:
Helbide elektronikoa:

Juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa edukirik,

Ordezkariaren datuak (ordezkaririk balego):
Izen/abizenak:
NAN/AIZ:
Helbidea:
Telefonoa:
Helbide elektronikoa:

HONAKOA DEKLARATZEN DU:

I. . Amorotoko Udalaren jabetzakoa den, Amorotoko Elexalde azuoa 8an kokatutako Herriko Tabernaren errentamendu eta ustiapena xede dituen kontratua esleitzeko Amorotoko Udalak deitutako prozedurari buruz jakitun dagoela.

II. Ondoren adierazten den gaitutako posta elektronikoko helbidea izendatzen dudala, bertan egiteko Amorotoko Udalak parte hartzen dudan kontratazio espediente honi dagozkion edozein motako errekerimendu, komunikazio eta jakinarazpenak:

E-posta helbidea: …….

.....n, 2024ko.....ren.....an.
Sinadura

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

IV ERANSKINA. MODU AUTOMATIKOAN EBALUATU DAITEKEN ESKAINTZA ETA ETA PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA (B KARTAZALA)

Lizitatzailearen datuak:
Izen/abizenak:
NAN/AIZ:
Helbidea:
Telefonoa:
Helbide elektronikoa:

Juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa edukirik,

Ordezkariaren datuak (ordezkaririk balego):
Izen/abizenak:
NAN/AIZ:
Helbidea:
Telefonoa:
Helbide elektronikoa:

HONAKOA DEKLARATZEN DU:

I. Amorotoko Udalaren jabetzakoa den, Amorotoko Elexalde azuoa 8an kokatutako Herriko Tabernaren errentamendu eta ustiapena xede dituen kontratua esleitzeko Amorotoko Udalak deitutako prozedurari buruz jakitun dagoela.
II. Era berean, administrazioko klausula partikularren plegua eta dokumentazio teknikoa aztertu duela eta ezagutzen duela.
III. Baita ezagutzen dituela kontratazio honetan aplikagarriak diren legezko eta erregalamenduzko testuak.
IV. Eskaintza honen xede den lokala errentan hartzeko hitza ematen duela, eta ondorengo proposamena aurkezten duela:

- **Urteko kanona** legez _____ _____ (_____,___ €) euro, (letraz eta zenbakiz adierazi beharko da) izatea, eta kopuru honi BEZari dagokion %21 gehitu beharko zaio eta sei hilean behin ordainduko da.
- Eraikinean egiteko **hobekuntzak**, _____ eurotan ekonomikoki baloratuak.

Erantsitako agiria/memorian zehazten dira, merkatuko prezioen arabera baloratuta.

- **Lan-esperientzia** ostalaritzan**.**

Titular/arduradun:_____ urte.
Langile: _____ urte.
Antzerako establezim: Bai/Ez (markatu dagokiona)

Lan-esperientzia egiaztatzeko agiriak erantsi beharko dira.

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

- **<u>Euskararen ezagutza</u>.**
  - A1 maila: ( )
  - A2 maila: ( ) (Markatu dagokiona)
  - B1 maila: ( )
  - B2 o goragoko maila: ( )

Euskararen ezagutza egiaztatzeko agiriak erantsi beharko dira.

.....n, 2024ko.....ren.....an.

Sinadura

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

USTIAPENERAKO PROIEKTUAREN EREDUA (A KARTAZALA)

Lizitatzailearen datuak:
Izen/abizenak:
NAN/AIZ:
Helbidea:
Telefonoa:
Helbide elektronikoa:

HONAKOA DEKLARATZEN DU: Herriko Tabernaren ustiapenarako ondorengo proiektua aurkezten duela, lizitazio espedientean baloratzeko:

Negozioaren plangintza eta antolaketa. Kudeaketa proiektua. Alde orokorrak (zehaztu):

Zerbitzua ematea:

- Jendearentzako ordutegia zabaltzea zehaztutako gutxieneko ordutegitik. (Zabaltzea eskaintzen bada zehaztu)
- Janari zerbitzua zabaltzea zehaztutako gutxienekotik. (Zabaltzea eskaintzen bada zehaztu)
- Dendako produktu-eskaintza handitzea, zehaztutako gutxienekotik. (Zabaltzea eskaintzen bada zehaztu)
- Zerbitzuaren antolaketa eta aurrera eramateko jarduera-ekintzak. (Zehaztu),
- Negozioa kokatuta dagoen ingurune fisiko eta giza-ingurunearen ezagupena. (Zehaztu).
- Ondorengo dokumentazio gehigarria eransten da proiektu honetan aipatutakoa baloratu eta egiaztatzeko balio duena. (agiriak zehaztu)

.....n, 2024ko.....ren.....an.
Sinadura

OHARRA: Eredu hau lizitazioan parte hartu nahi duten pertsonei laguntza emateko eta gida bezala erabiltzeko egin da. Hala ere, ez da nahitaezkoa erabiltzea, eta interesdun bakoitzak egoki iruditzen zaion formatua erabili ahal izango du, baldin eta onetsitako klausulen agiriko 9.a.1) klausularen arabera ebaluagarriak diren alderdiak aipatzen badira.

AMOROTO udala
Elexalde auzoa 1
48289 AMOROTO
94 684 25 49
info.amoroto@bizkaia.org
www.amoroto.eus

PROPOSATUTAKO HOBEKUNTZEI BURUZKO AGIRI/MEMORIA EREDUA (B KARTAZALA)

Lizitatzailearen datuak:
Izen/abizenak:
NAN/AIZ:
Helbidea:
Telefonoa:
Helbide elektronikoa:

HONAKOA DEKLARATZEN DU: Agiri/memoria hau aurkezten duela eta bere bitartez KONPROMISOA hartzen duela, lizitazio espedientean baloratuak izateko, Herriko Tabernan ondorengo hobekuntzak egiteko:

	Proposatutako hobekuntzaren izena	Prezioa/balio ekonomikoa	Aurrekontua/zehaztasunak erantsita
1		€	BAI/EZ
2			
3			
4			

.....n, 2024ko.....ren.....an.
Sinadura

OHARRA: Eredu hau lizitazioan parte hartu nahi duten pertsonei laguntza emateko eta gida bezala erabiltzeko egin da. Hala ere, ez da nahitaezkoa erabiltzea, eta interesdun bakoitzak egoki iruditzen zaion formatua erabili ahal izango du, baldin eta onetsitako klausulen agiriko 9.a.1) klausularen arabera ebaluagarriak diren alderdiak aipatzen badira.